

EZ, EZ, EZ...

Arratsalde hartan pozik nengoen, zeren gora begiratur, gero, zeru garbi bat aurki bait nezakeen. Inolako kutsadurarik gabe. Talde hark eginiko lanak bere eragina izan du azkenean. Talde haren izerdiak pena merezi izan du, lanak bere fruitua eman du. Hilabeteetan zehar edukitako helburua gertu ikusten zen. Gizakiak hainbat urteetan hondatutako lurra konpontzen hasi berria zen. Hasiara batean ez genuen ezer ere espero, baina gaur da eguna, dena garbi ikusten dugun eguna.

Baina gure pentsakera hau, itxaropen hutsa soilik ez da. Gure zoriontasun honek ez du iraungo. Baina hori bai, denbora guztian zehar burua goian mantenduko dugu.

Ez zegoen astirik gure ideiak aurrera eraman ahal izateko. Zerua, unez une itxitzen zihoan. Gure bizitzaren amaiera gertu zegoen eta ezin zitekeen ezer egin, itxaron soilik. BOOM!!! Eztanda bortitz bat.

Ez nuen ezer nabari, ezer ikusten. Ez nuen ezer sentitzen, ezer ere ez. Ez nintzen ezeren beldur, ezergatik alai. Ez nintzen ausart, ez nintzen triste. Ez nintzen ez irribarre, ez algarra. Ez, ez, ez...

Gauza guzi haien ezetzak unibertso haren erdian galtzen ninduen. Jende multzo haren inguruan, ezertan bihurtzen ninduen. Bakardade hartan asko egiten ninduen. Isiltasun hartan zarata. Zarata hartan isilune. Kolorez beteriko mundu hartan gardena. Gardena zen mundu hartan ortzadar. Gauzaz beteriko leku hartan ezer. Ezer ez zegoen leku hartan dena. Maitasunaren artean gorroto. Gorrotoaren artean maitasun.

Alde batetik askea eta bestetik atxilotua. Zuriaren artean beltz. Egurraren artean burni. Uraren artean ardo. Baina hala ez nintzen ezer. Ez, ez, ez...

LOREA INTXAURRANDIETA

